

# GIZARTE-ALDAKETAK

## LANGILE MUGIMENDUAREN SORRERA ETA GARAPENA

### SARRERA

Industria Iraultzak aldaketa sakonak eragin zituen gizartean. Burgesia nagusi bihurtu zen jabetza eta negozioak kontrolatzen zituelako. Erdi-mailako klaseak ere bazeuden bizi-mailak eta prestakuntza profesionalak gainerako herri-klaseetatik bereizi arazi. Pertsona gehien-gehienak behe-mailakoak ziren: industria eta landako langileak, baztertuak...

Hirietako biztanleria aunitz hazi zen ondorioz osasungarritasun eta bazterkeria arazoak, gaixotasunak eta delinkuentzia sortu ziren.

Erreformaren aldeko batzuek langileriaren egoera salatu zuten. Langileak beren egoeraz jabetzen ari ziren eta horrela sortu zen langile-mugimendua (ugazabek langileen aurka egindako gehiegikeriak salatzeke). Askatasun sindikala aunitzez geroago lortu zen: 1864tik 1884ra bitartean Europako herrialde gehienetan onartu zen. Izaera iraultzaileko gizarte-proiektuak formulatzen zituzten horrela sortu zirelarik ideologia marxista eta anarkista eta gizarte-ordena burgesarekin erabat haustea planteatu zuten bidegabetzat jotzen zutelako.

## 1. GIZARTE HIRITAR ETA INDUSTRIALA

### 1.1. HIRIA, GIZARTEAREN GUNE BERRIA

Biztanleria hirietan biltzen zen pixkanaka eta ekonomian industria-jarduera ari zen nagusitzen. Mundu industrializatua hirien mundua izan zen: hiriak agudo handitu ziren. Aldaketa Erresuma Batuan gertatu zen lehendabizi. 1860 inguruan fabrika gehienak hirietan zeuden kokatuta eta ez landan. Londres izan zen aldaketa horren adibide bat. 1800. urtean munduan biztanle gehien zituen hiria zen. Hazkunde izugarri hori landako exodoaren eta jaiotza-tasa altuaren ondorio izan zen. Europako bertze zenbait hiritan ere gauza bera hauteman zitekeen: Birminghamen, Bruselan, Glasgoven, Milanen, Parisen eta Vienan. Urbanizatzeko-prozesua areagotu egin zen XIX. mendearen bigarren erdialdean.

Hiri-hazkunde bizkorrak premiak eragin zituen. Langileak landatik iristen ziren normalean eta industrietatik hurbil zeuden auzoetan pilatzen ziren hiriaren kanpoaldean oinarrizko zerbitzurik gabe (estolderia, ura, argia eta eskolak,...). Burgesia erdiguneko bizitegi auzoetan bizi zen.

Hirietan industriako langileak biltzeak mesede egin zion langileriaren kontzientziazioari. Langileek arazo eta gabezia berberak zituzten horrek langileen elkarteak sortzea sustatu zuelarik beraien interesak defendatzeko eta bizi nahiz lan baldintzak hobetzeko.

### 1.2. GIZARTE INDUSTRIALA

Gizarte berri hori industrial zeritzon ezaugarri horrek gizartearen elementu guztiak definitzen zituelako.

XIX. mendearen erdialdean Europako herrialdeetan 3 gizarte mota zeuden:

Landako gizarte tradizionalak: biztanleria gehienak nekazaritzan jarduten zuten.

Merkatariak, eskulangileak eta profesional liberalak ere gizarte talde garrantzitsuak ziren. Landako zenbait langile beren lurra lantzen zuten jabe ttikiak ziren bertze zenbait bertze batzuen lurra lantzen zituzten errentariak eta jornalariak. Lur-jabe handien talde ttiki baten esku zeuden lur gehienak eta gizarteko, ekonomiako eta politikako boterea ere bai. Nobleziakoak ziren eta XIX. mendearen erdialdetik aurrera burgesia aberatsak

lurrak erosi zituzten noblezia zaharra antzeratzeko. Portugalen, Espainian, Italian, Balkanetako inguruan eta Europako ekialdeko herrialdeetan ageri zen.

Landako gizarte garatuak: oinarritzko jarduera merkatuko nekazaritza edo nekazaritza komertziala zen. Hirien eta demografiaren hazkundeak eragiten zuen hazkundera gero eta elikagai gehiago eskatzen zituzten. Nekazaritza teknifikatzearen alde zeuden produktibitatea handitzeko. Lurrak nobleenak, nekazaritzako burgesia handiarenak eta nekazari aberatsenak ziren. Haien zati egiten zuten lan errentariak, nekazaritzako langileak bai landan bai etxeko lanetan. Ingalaterrako zenbait eskualdetan.

Hiri-gizarteak: Industrializazioa izatean landako exodoa jaso zuten gizarteak ziren gune garatuak eta industrializatuak. Klase gizarte osatzen zuten 3 talde handiak ziren nagusi (burgesia industrial, erdi-mailako klaseak eta proletarioak). Erresuma Batuan, Frantzia, Herbehereetan, Alemanian eta Italia iparraldean ekonomikoki aktiboak ziren guneetan zeuden hiri-gizarteak.

## 2. BURGESIAREN NAGUSITASUNA

### SARRERA

Burgesia zen gizarte industrial berriko gizarte talderik boteretsuena. Ez zen gizarte talde homogeneo bat pentsaeran, bizimoduan eta aberastasun mailan desberdintasun nabarmenak zituzten elkarren artean.

Burgesiaren zati bat industria jarduerarekin lotuta zegoen bertze zati bat nekazaritzako errentei esker bizi zen.

### 2.1. GIZARTE ELITE BERRIAREN BIZIMODUA

Gizartearen gailurra aberatsenek osatzen zuten: aristokraziaren zati batek eta goi-burgesiaren zati batek. XIX. mendean aristokrazia eragina galduz joan zen politikan eta ekonomian goi-burgesiaren mesedetan.

Elite berriak edo buru zen guttiengoak jabetzan eta aberastasunean oinarritu zuen nagusitasuna. Plutokrazia (plutos hitzak dirua erran nahi du grezieraz) izena eman zitzaion aberatsenak soilik izan zitezkeelarik talde horretakoak. Elite horren eragin ekonomikoa handitu ahala gizarte-klase nagusi bihurtu zen.

Talde horrek aintzinako nobleziaren bizimodu aberats eta luxuzkoan gizarte-jarraibideak antzeratu zituen. Hala ere, desberdintasun handiak zeuden aintzinako nobleziaren eta goi-burgesiaren artean. Azken horiek ekonomia-aurrerapenaren alde zeuden beren negozioak zuzentzen zituzten eta ez zuten aisialdi aunitzik. Ordenaren eta jabetzaren aldekoak ziren eta etika hau zuten: aurrezte, familia-bizitza, lanaren eta ahaleginaren duintasuna eta erlijio-jarduera errespetatzea.

XIX. mendearen bukaeran eredu hagitza arrunta zen Ingalaterran, Alemanian guttiago eta deus ez Errusian, Italian, Espainian eta Frantzia.

### 2.2. ERDI MAILAKO KLASEEN BIZIMODUA

Kontzeptua Erresuma Batuan erabili zuten lehen aldiz, Industria Iraultzan, profesionalak eta negozio-gizonak izendatzeko. Batetik, nobleziatik bereizten ziren eta bertetik nekazaritzako eta industriako langileetatik.

Erdi mailako burgesia negozio eta jabetza ttikietatik edo jarduera profesionaletik bizi zen. Begirunea, duintasuna, diskrezioa eta zintzotasuna haien etikaren eta ideologiaren zati ziren.

Erdi mailako klasea edo burgesia ttikia negozio ttikietatik eta nekazaritzako jardueretatik bizi zen; soldatapeko kualifikatuak eta funtzionario publikoak ere taldekoak ziren. Ahalmen ekonomiko eskasa zuten baina itxurei eusten zieten. Burgesia ttikiak XIX. mendeko politika eta gizarte borroketan parte hartu zuen.

### 3. INDUSTRIALIZAZIOAREN GIZARTE ARAZOAK

#### SARRERA

Industrializazioak gizarte aldaketa sakonak ekarri zituen. Gizarte industrialean burgesiak gainera gero eta ugariagoa zen bertze gizarte talde bat nabarmendu zen: industriako langileak. Haien la neta bizi baldintza penagarriak bizi eta lan baldintzak hobetzearen aldeko gizarte-kontzientzia sortu zen.

#### 3.1. LANGILERIAREN SORRERA

Langileak edo proletarioak gizarte talde berri bat ziren.

Batzuk herri lurak galdu ondoren bizibidea ateratzeko gai ez ziren nekazariak ziren.

Bertzeak etxean lan egiteko sistemako langileak (domestic system) eta ekonomia industrialeko eskakizun berrietara moldatu behar izan zuten.

Baziren gremioetako eskulangileak ere hirietan eta haien lantegiak itxi zituzten.

Makinak sartzea izan zen langileriaren sorreraren hasiera. Makinei esker eskulangileen trebetasuna ez zen beharrezkoa eta gainera prestakuntzarik behar ez zuen lan eskua kontrata zezakeen ondorioz gremioen egiturak behera jo zuen.

#### 3.2. LAN BALDINTZAK

Hagitz gogorrak ziren enpresak ahalik eta etekin handiena lortzera bideratuta zeuden.

Ezaugarriak:

Lanaldi luzeak.

Diziplina gogorra, enpresak ezarritako araudiaren arabera, gorputz zigor eta zigor ekonomiko eta guzti.

Igandeetan eta jai-egunetan lan egitea.

Kaleratze ugari. Eri edo langabezia geldituz gero pentsiorik ez.

Langileek ez zuten lan eskubiderik, ez eskubide sindikalik ere. Elkartze eskubidearen lehen arautzea Erresuma Batuan egin zuten 1824-1825ean eraginkortasun ttikiarekin.

Fabrikako lan baldintzak gogorragoak ziren nekazarien lan-baldintzak baino.

XIX. mendearen bigarren erdira arte langileek elkar ezagutzen ez zuten eta langileburu edo ugazaba baten mende zeuden fabrika handiak ez ziren orokortu.

Lan berria mekanikoa zen, errutinakoa eta makinek markatzen zuten erritmoa.

Eskulangileen lan sistema kalitate onekoa zen eta eraginkorrak izanez gero gotti egiteko aukera izaten zuten. Fabriketan langileek ez zuten eskubiderik ez eta gizartean nahiz lanean hobetzeko aukerarik ere.

#### 3.3. HAURREN ETA EMAKUMEEN LANA

Industria Iraultza baino lehenago emakumeek eta hurrek era aunitzetako lanak egiten zituzten landa, familiaren lantegian eta etxean. Eskolatzea ez zen ohikoa. Ezkutuko lan eskua zen.

Emakumeei emandako zenbait lanbide: kapelagina, kortsegilea, jostuna, iruela, esne-saltzailea eta neskamea. Soldatak hagitz eskasak ziren familiak irautek osagarri bat bertzerik.

Industrializazioarekin batera gero eta emakume gehiago zeuden zenbait lanetan: etxeko lanetan, ehungintzan, nekazaritzan, abeltzaintzan eta meatzaritzan. Emakume gutti aritu ziren lanean siderurgian eta metalurgian, portuetan eta eraikuntzan. Ehungintzan aunitzek egiten zuten eta gizonek bezain lanaldi luzeak izaten zituzten soldatak gizonenak baino aunitzez baxuagoak zirelarik.

Haurren lana oinarri-oinarrizkoa zen familiako ekonomiarako. Egunean 14 ordu egiten zuten lan helduek baino soldata tikiagoa jasoz. Eskolara joatea ez zen batere ohikoa. Haurrak babesteko legeria eskasa izan zen eta interes handirik gabe aplikatu zen.

### 3.4. BIZI MAILEI BURUZKO EZTABAIDA

1845ean Friedrich Engels-ek Ingalaterrako langileriaren egoera lanean egin zuen azterketa hagitz garrantzitsua izan zen; lanean industrializazioak Ingalaterrako langileengan izandako eraginak islatu zituen. Txosten horiek aukera eman dute XIX. mendean Britainia Handiko langileriaren bizi-maila hobetu den ala ez eztabaidatzeko. Garaiko aditu aunitzen ustez XIX. mendeko industriako langileen bizi-baldintza negargarriek bizi-maila izugarri jaitsi zela adierazten zuen.

Industriako langileen soldatei buruzko datuak eta kontsumo mailaren bilakaera aztertu ondoren ideia hura ezkorra zela ondorioztatu zuten. Gerora aunitz eztabaidatu da horri buruz.

Ondorioen arabera, bizi-mailak hobera egin zuen XVIII. mendena. Geroago txarrera egin zuen; izan ere biztanleria handitu, ekoizpen sistema aldatu eta Frantziaren aurkako gerrak izan ziren iraultzaren eta Napoleonen garaian. Garai hori igaro ondoren gizartearen beheko klaseen bizi mailak eta ongizatea hobetu egin ziren poliki-poliki.

## 4. LANGILE MUGIMENDUAREN OINARRI IDEOLOGIKOAK

### SARRERA

XIX. mendeko langile mugimenduetan langile klasearen egoera salatu eta konponbide erreformistak edo iraultzaileak proposatu zituzten pentsalariak zeuden.

Langileen ideologia nagusiak sozialismo utopikoa, sozialismo marxista eta anarkismoa izan ziren.

### 4.1. SOZIALISMO UTOPIKOA

Lehenengo sozialistek proletarioen premiak eta nekeak salatzen zituzten eta etorkizuneko gizarte alternatiboak irudikatzen zituzten.

Oinarriak ideia hauek izan ziren:

Gizarte ideala eta perfektua zuten helburu, gizakia bakean, harmonian eta berdintasuna bizitzeko modukoa.

Gizarte proiektu hori modu baketsuan.

Elkartasun filantropia eta anaitasunezko maitasuna nagusi.

Industria modernoko berritasunen aldekoak baina langileei eragiten zizkieten kalteak salatzen zituzten.

XIX. mendearen lehen erdian izan zuen goren unea. Ideologo nagusien artean:

Saint-Simon-eko kondea: gizarte osoaren oinarria industria zen nekazaritza, industria edo merkataritza ekoizpen gisa ulertua oparotasun iturri bakarra. Nazio osoak lantegi handi bat izan behar zuen. Jabeak eta langileak berdinduta zeuden ekoizpenean, eta gaitasun handienekoek izan behar zuten buru, demokratikoki aurreratuta. Intelektualen, zientzialarien eta jakitunen eliteak pobreenen bizitza bermatuko zuen teknokrazia osatzen zuten. Gizarteko sektore nagiek (armada, Eliza eta noblezia) boterea ekoizleei eman beharko zieten.

Charles Fourier: gorroto zuen industria-enpresa kapitalista. Langileen ustiapena, miseria eta lan-monotonia eragiten zituen bere ustez. Falansterio izeneko kooperatibak sortzea proposatu zuen, nor bere administrazioa izateaz gain, buruaskiak ziren nekazaritza eta industria zentroak. Ekoizpen eta kontsumo talde horiei esker gizarte harmonia lortuko

litzateke. Jarraitzaileek AEB eta bertze zenbait herrialdeetan fundatu zituzte baina porrot egin zuten. Gizon eta emakumeen berdintasuna proposatu zuten.

Robert Owen: ehungintzako enpresaburua. New Lanark ehungintza fabrikako bazkidea zen eta langileen bizi-baldintzak hobetzeko neurriak aplikatu zituen (lanaldia murriztea, soldatak hobetzea, haurren hezkuntza). New Harmony komunitate ideala sortu zuen Indianan (AEB) baina porrot egin zuen. Haren lanak eragina izan zuen langile kooperatibismoaren, sindikalismoaren eta mutualismoaren garapenean.

Louis Blanc: 1848an langabeen egoerari aurre egiteko sortutako Lantegi Nazionalaren aldekoa.

Étienne Cabet: *Bidaia Icariara* lanaren egilea. Jabetza pribatua eta merkataritza ezabatzearen aldekoa zen eta politika demokratikoki antolatzearen aldekoa.

#### 4.2. SOZIALISMO MARXISTA

Marxismoa edo sozialismo zientifikoa Kart Marxek eta Friedrich Engelsek landu zuten. 1848an *Manifestu komunista* argitaratu zuten beren gizarte eta politika doktrinaren laburpena.

Marxistentzat klaseen borroka zen historiako gizarte aldaketaren eragilea eta ekoizpenetik eratorritako gizarte harremanek gizateriaren eboluzio horren etapa bakoitzeko egitura sozioekonomikoa zehazten zuten. Marxek ekoizpen modu izendatu zituen etapa horiek.

Marxen garaian, ekoizpen modu kapitalista ari zen garatzen ezaugarria burgesen (ekoizpen bideen jabeak) eta proletarioen arteko klase borroka zen.

Marxen lanik garrantzitsuen eta eraginkorrena *Kapitala* izan zen. Bere ustez ugazabak langilea zenbateraino esplotatzen zuen jakiteko neurria gainbalioa zen; langileak ekoizten duenaren balioaren eta jasotzen duenaren arteko aldea. Gainbalio hori da kapital metaketaren oinarria.

Proletarioek boterea indarkeriaren bidez lortzea defendatzen zuen sistema kapitalistaren ordez klaserik eta jabetza pribaturik gabeko bertze sistema ezartzea eta estatu burgesa proletarioen diktadura bihurtzea; egoera hori aldi baterako izango litzateke, gizarte komunista lortu arte. Gizarte komunistan Estatu ez litzateke beharrezkoa.

XIX. mendeko bigarren erdiko eta XX. mende guztiko mugimendu iraultzaileen oinarri ideologikoa izan zen. 1917ko Errusiako Iraultzaren ondoren zabaldu zen.

#### 4.3. ANARKISMOA

Anarkia hitzak agintaritzarik gabe erran nahi du. Teorilari nagusia Mihail Bakunin errusiar aristokrata militarra izan zen. Gizarte kapitalistaren eta Estatuaren arteko berezko matxinada defendatzen zuen.

Anarkosindikalismoaren helburua ez zen soilik industriako proletarioen ekintza, gizarteko sektore zapaldu guztiena baizik. Iraultza marxista baino erradikalagoa zen gizarte-iraultza horren helburua gizarte ordena burgesa, Estatu eta bere kontrol tresnak berehala suntsitzea zen.

Sozialistek eta anarkistek gizarte komunista (klaserik eta Estaturik gabe) zuten helburu baina estrategia desberdinak zituzten. Anarkisten ustez Estatu berehala suntsitu behar zen; marxisten ustez langileek Estatu konkistatu behar zuten eta boterea kontrolatu fase iragankor batean. Bi ideologia horien arteko desberdintasunen ondorioz liskarra sortu zen Lehenengo Internazionalan (1864-1872)

#### 4.4. IDEOLOGIA NAGUSIEN OINARRIAK

##### Sozialismo Utopikoa

Jabetza kolektiboko komunitate ttikiak

Estatu ongilea, taldeko esperientzien babeslea  
Komunitate bakoitzaren beharrak betetzera zuzendutako ekonomia  
Taktika politiko baketsua  
Berdintasunezko gizarte-antolakuntza: pertsona guztiek eskubide berak, beren burua aski duten komunitate ttikietan

#### Marxismoa

Jabetza estatuaren esku  
Estatu diktatoriala, komunismoa behin betiko ezarri arte; une horretan, Estatua desagertuko litzateke  
Ekonomia zentralizatua eta kolektiboa  
Langileen alderdien eta sindikatuen sorrera, Estatua indarkeriaz konkistatzeko, iraultzaren bidez  
Gizarte-klaserik gabeko gizarte. Gizarteak banakoa hutseratzen du

#### Anarkismoa

Guztien artean administratutako jabetza kolektiboa  
Estatua berehala desegitea  
Ekonomia kolektiboa komunitate bakoitzak autonomia duela  
Politikan parte hartzeari uko egitea: gizarte instituzio guztiak berehala suntsitzeko iraultza bortitza  
Gizarte klaserik gabeko gizarte. Banako bakoitzak askatasun osoa

## 5. LANGILE MUGIMENDUAREN SORRERA ETA GARAPENA

### SARRERA

Industriako langileek bizi eta lan baldintza gogorrak zituzten eta esplotazio ekonomikoa jasaten zuten. Horrek antolatzea bultzatu zituen langile batzuk gehiegikeria horien kontra egiteko.

#### 5.1. AURREKARIAK: FRIENDLY SOCIETIESETATIK LUDISMORA

Lehenengo langile elkarteak gizarte-klubak ziren langileak babesteko legeak bete zitezela zuten helburu. XVIII. mendetik zeuden horrelako elkarteak senidetasunezko elkarte (friendly societies) izenekoak. Mende horren amaieran bilakatuz joan ziren sindikatu bihurtu arte. Unions edo langileen elkarteak eta erreforma politikoko eta joera demokratikoko klubak zabaldu ziren Erresuma Batuan makinak zabaldu ziren garaian. Sindikatuak debekatuak egon ziren urteetan, sindikalistak ostatutan bildu eta mitinak antolatzen zituzten klandestinitatean eta batzuetan makinaren aurkako matxinaden buru izaten ziren.

Langile mugimenduaren lehenengo etapetako fenomeno nabarmenetakoa ludismoa izan zen. Ehungintzan makina berriak sartzerakoan langileak indarkeriaz erantzun zuten makinei uko egiteko beren lanpostuak kolokan jartzen zituztelako. Mugimendu ludditek Britainia Handiko gizarte astindu zuten XVIII. mendearen bukaeratik XIX. mendeko 30. hamarkadara bitartean eta Europa osora zabaldu ziren. Ned Ludd fikziozko pertsonaiari zor zaio izena eta sinadura hori agertzen zen protestetan eta paskinetan eta fabriketako makinak eta lehengaiak erretzerakoan eta hondatzerakoan ere. Aberatsen aurka eta haiek babesten zituzten epaileen aurka jarduten zuten. Matxinadarik nabarmenenak 1799tik 1831ra bitarteko zenbait ziklotan gertatu ziren.

#### 5.2. SINDIKALISMOA ERRESUMA BATUAN: ELKARTZE ASKATASUNAREN ALDEKO BORROKA LUZEA

XIX. mendearen hasierako langile protestetan izandako gertakari erabakigarri bat Peterloo-ko sarraskia izan zen. Manchesterren gertatu zen 1819an Saint Peter ordokian 10.000 manifestari baino gehiago bildu ziren ordenan eta bakean artoaren legea atzera botatzeko eskatzeko. Armadak tiro egin zuen jendetzaren aurka aurrez ohartarazi gabe. 11 hildako eta ia 200 zauritu larri eragin zituen. Errepresioaren ondorioz biktimei elkartasuna adierazteko mugimendu bat sortu zen herrialde guztian. Gertakariak langileriaren arazoei buruzko kontzientzia hartzen lagundu zion Britainia Handiko gizarteari.

Langile-elkarteak legeztatu zituen Britainia Handiko gobernuak. 1824ko legeak jarduera sindikal bizia piztu zuen. Parlamentuak lege berri bat onartu zuen 1825ean horri erantzuteko. Legeak langileen ekintza murrizteaz gain boikot ekintzak Konspirazio Legearen barruan sartzen zituen.

Borrokarako gogo bizia ez zen eten. 1830etik aurrera sindikatuen batasun handi bat osatzeko ahaleginak egin ziren. 1834an *Grand Nacional Consolidated Trades Unions* (Sindikatu Bateratu Nazional Handia) fundatu zuten eta nekazaritzako zein industriako milioi erdi langile baino gehiago biltzera iritsi zen. Sindikatu Handia urtebete beranduago desagertu zen 2 arrazoirengatik: tokian tokiko greba ugariak sindikatuaren funtsak agortu zituztelako eta zenbait buruzagi prozesatu zituztelako.

Porrotak etsipena sortu zuen sindikalistengan aunitz kartismora pasatu ziren. Zenbait eskubide eskatzen zituen izaera politikoko masa mugimendura (sufragio unibertsala, diputatuen independentzia, 8 orduko lanaldia eta pobreei buruzko legeak berraztertzea). Izena Herriaren Gutuna izeneko dokumentutik zetorkion. Gutunaren 6 puntuetan langileen eskakizunez gain behe burgesiarenak edo klase ertain baxuarenak zeuden. Mugimendu kartistak goren unea izan zuen lehen fasean (1838-1839) baina parlamentuak uko egin zien eskaerei eta XIX. mendeko 40. hamarkadan greba, sabotaje, protesta eta istilu bortitzetan parte hartu zuten. 1848ko Londresko azken manifestazio handiaren ondoren disolbatu ziren.

Kartismoaren porrotaren ondoren Britainia Handiko mugimendu sindikalak metodo baketsuetara eta negoziatziora jo zuen. 1850eko hamarkadan bertze sindikatu batzuk sortu ziren. Ezaugarriak: esparru nazionalako sindikatuak, langile tekniko osatuak eta kideei kuota kobratzeaz gain mutualistei irabaziak ematen zizkieten. Eredu hori oinarri hartuta sindikatu desberdinak sortu ziren Erresuma Batuan hurrengo urteetan 1871tik 1875era bitartean langileen elkartearen (Trade Union Act) legeztatzeke legeak onartu zituzten arte.

### 5.3. SINDIKALISMOA EUROPAKO GAINERAKO HERRIALDEETAN

Europako bertze zenbait herrialdeetan sindikalismoa industrializazioaren erritmoan zabaldu zen. Britainia Handiko kasua erreferentzia gisa hartuta. Langile mugimenduaren bertze ardatz handietako bat garatu zen: kooperatibismoa.

#### Frantzia

Erdi Arotik zeuden langile ezkongabeen elkarrekin compagnonnage izenekoak. Eskulangilez osatuak eta nor bere kabuz lanean hasi baino lehen batetik bertzera ibiltzen ziren ogibidea ikasten. Elkarrekin XIX. mendearen bigarren erdira arte iraun zuten eta sindikatuei utzi zieten lekua pixkanaka.

Sindikatuak sociétés de resistance zerituzten Frantzian. 1840ra bitartean industrializazioaren hasieran ugariak ziren. Matxinaden, protesta gogorren eta greben ondorioz kale gatazka ugari izan ziren eta armadak erreprimitu zituen.

Garai hartan sindikatuak legez kanpokoak ziren eta legeari eta agintariei aurre egiten zieten. Iraultzako legeria elkarte-eskubidearen aurkakoa izan zen beti segurtasunik eza

ikusten baitzuten horretan. Debekuek ez zuten kikildu mugimendu sindikala eta batzuetan sindikatuak elkarri laguntzeko elkarteak izatearen itxurak egiten zituzten. Legezko debekuak 1864ra bitarte iraun zuen. Urte hartan Napoleon III.ak lege murriztaileak abolitu zituen aldi baterako eta elkarteen kasurako soilik. 1868an langileen sindikatuak baimendu ziren behin betiko onartu zituzten baina ez legezatu 1884an elkarteen legea onartu zuten arte.

#### Alemania

Mugimendu sindikalaren garapena motela izan zen. Lehenengo elkarteak 1830eko hamarkadan sortu ziren (baztertuen federazioa) eta 1830etik 1848ra bitartean korrante sozialistek eta komunistek eragina izan zuten langile alemanengan (pentsalari utopiko frantsesek ere). Lehenengo elkarteetako bat 1848ko Inprimatzaileen Batasuna izan zen. 1860ra arte langileen elkarte guztiak legez kanpokotzat hartzen zituzten. Prusiako gobernuak 1869an langileen elkarte eskubidea bermatzen zuen lege bat onartu zuen. Alemanian sindikalismoaren eta politikaren arteko lotura ematen zen. 3 sindikatu mota bereizten ziren 60ko hamarkadatik:

1 Batasun sozialistak: ugariak eta eragin handienetakoak

Sindikatu liberalak: Ingalaterrako eredu profesionalizatua eta apolitikoa imitatu nahi zuten

2 Kristau sindikatuak: gizarte ordena ez zuten zalantzan jartzen eta ugazaben eta langileen arteko harmonia bilatzen zuten.

3 Mugimendu sindikala toleratzen zuten baina ez zen erabat legezkoa izan 1918ra arte.

#### Espainia eta Italia

Langile mugimendua berandu samar hasi zen eta industrializazioaren hasierarekin lotuta egon zen horregatik eskualde industrializatu batzuetan bakarrik kokatu zen.

Espainian langileen lehen mugimenduek ludismoa imitatu zuten. 1840ko eta 1850eko hamarkadetan lan gatazkak ugariak izan ziren. 1868ko iraultzan hartu zuen langile mugimenduak nolabaiteko garrantzia Lehenengo Internazionalaren baitan. Elkarte eskubidea lehenengo aldiz 1869an baimendu zuten eta Konstituzioan 1876an baina erabateko onarpena 1887an gertatu zen Elkarteen Legea onartu zen. Une hartatik aurrera mugimendu sindikala erabat garatu zen.

Italian borroka sindikalak 1864ko eta 1877ko ehungintzako grebetan hasi ziren eta XIX. mendetik XX. mendera bitartean garatu ziren. Langile borroka Europakoa eta Amerikako herrialde guztietara zabaldu zen.

## 6. LEHENENGO INTERNAZIONALA

### 6.1. JATORRIAK, SORRERA ETA HELBURUAK

Langileen nazioarteko erakunde bat sortzeko ideia behin eta berriz azaldu zen XIX. mendearen hasieratik. Langileen Nazioarteko Elkarte (LNE) sortzerakoan gauzatu zen nahia.

Londresen Frantziako eta Britainia Handiko langile-buruzagien arteko bilera bat egin zuten 1862an. Hori izan zen lehenengo nazioarteko elkartearen jatorria. Prestaketak 1864ko udaberrian hasi ziren gonbidatuak izan zirelarik: britainiar sindikalistak, mutualista frantsesak, sekretu samarrak ziren talde batzuk eta 1848ko iraultzetatik Londresen bizi ziren Alemaniako, Italiako, Suitzako eta Poloniako erbesteratuak. Langileen Nazioarteko Elkarte (LNE) edo Lehenengo Internazionala 1864ko irailaren 28an Saint Martin's Hall-en, Londresen, egindako mitinean sortu zen.

LNEn erbesteratuek zeregin handia izan zuten. Inaugurazio-manifestua eta erakunde berriaren estatutuen proiektua idazteko ardura eman zioten Marxi. LNEn leloa "herrialde guztietako proletarioak elkar zaitezte!" berehala ezagun egin zen.



Inaugurazio manifestuan 1848tik aurrerako langileriaren bilakaerari buruzko balantzea egin zen eta proletarioak boterea lortu behar zutela adierazten zen. Estatuetan ezartzen zen tokian tokiko sekzioak eta federazio nazionalak sortu behar zirela Europako mendebaldeko herrialdeetan, propaganda eta langileen gatazkekiko eta grebekiko elkartasuna ahaztu gabe.

## 6.2. BARNE-ARAZOAK ETA ZATIKETA IDEOLOGIKOA

Hainbat joeratako sozialistak eta sindikalistak zeuden. Berehala nabarmendu ziren lehenengo desadostasunak. Sektore autoritarioena Marxek eta Engelsek zuzendua, kontseilu nagusia indartzearen aldekoa zen baina erakunde nazionalen eta tokian tokiko autonomiaren aldeko mugimendu bat sortu zen begi onez ikusiz Bakuninen anti autoritarismoa.

1866tik 1869ra bitartean Internazionala hedatu bazen ere desadostasunak areagotu ziren.

1868tik aurrera liskarra gogortu egin zen Bakunin Internazionallean sartzerakoan.

1869an Marxek eta Bakuninek lehen desadostasun larria azaldu zuten.

1871n Parisko Komuna izeneko mugimendu iraultzailea piztu zen. Matxinada abertzalea zen Frantziaren eta Prusiaren arteko gerraren amaierako bake tratatuaren klausulen aurkakoa. Iraultza proletario bihurtu zen segituan. Armadak Parisko Komuna birrindu zuen milaka hildako eragin zituen astebeteko borrokaren ondoren. Komunaren porrotak Marxen eta Bakuninen arteko liskarra formalizatu zuen.

1872an Hagako kongresuan Bakunin kanporatu eta NLEren Kontseilu Nagusia New Yorken kokatzea erabaki zuten.

Zatiketaren ondoren suitzarrek, italiarrek eta espainiarrek kongresua utzi zuten eta Internazional anti autoritario berri bat sortzea erabaki Bakuninen anarkismoa oinarri hartuta: ekintza politikoari uko egitea (langileen Estatua sortzea barne) eta federazioen autonomia defendatzea.

## 6.3. LEHENENGO INTERNAZIONALAREN AMAIERA

Marx nazioarteko batasunaren aldekoa zen baina zatiketak eta langileen erakunde nazionalak gero eta indar gehiago izateak Marxen jarrerari kalte egiten zioten. Langile-mugimenduak internazionalismoaren bidea utzi zuen pixkanaka langileen alderdi nazionalak sortuz.

New Yorkek LNE itzaliz joan zen pixkanaka eta 1876ko uztailean erakundea disolbatzea erabaki zuten Filadelfiako batzarrean.

Korrante anti autoritarioak Europako federazio guztiak bildu zituen Alemaniakoa izan ezik. Hurrengo kongresuetan gero eta ordezkari guttiago izan ziren. Bakuninek 1874an utzi zuen. 1877an egin zuten azken kongresua eta 16 ordezkari soilik bertaratu ziren.